

7. AUTOA EGITEN

Auto bat nola egin ikasi duzu.

Oraingoan, ikasitakoa praktikan egin behar duzu.

1. Autoa egiteko planifikazioa. Egin aurretik, lana planifikatu eta autoa diseinatu behar duzue.
 - a. Taldekide bakoitzak bere autoaren irudia marraztuko du. Autoari eman nahi dion berezitasuna erantsiko dio bakoitzak. Autoa irudikatzeko erabiltzen duzun ordenagailuaren arabera tresna ezberdinak eskura izango dituzu.
 - Chromebook - [PaintZ](#)
 - Linux - [Pinta](#)
 - Windows - Paint.

Marrazkia egin eta gero irudia lauki honetan txertatu.

Zure marrazkia

- a. Kotxea egiteko beharrezkoak diren materialak taldean adostu, ez ahaztu apaintzeko behar dituzuen materialak ere kontuan izan behar dituzuela.

2. Diseinua egin ondoren zuen kotxea egitea da hurrengo pausoa.
 - a. Materialak eskuratu.
 - b. Denbora zehaztu ondoren, neurtu estu eta larri ez ibiltzeko.
 - c. Kotxea egin! Ez ahaztu apaingarriak.